

BEZEROAREKIKO HARREMANA

Sare sozialak izango dira gure tresna nagusia UBCAP S.A. enpresa ezagutzera emateko eta bezero gehiago lortzeko. Plataforma horietan egingo ditugun zozketen bidez, gure argitalpenak (argazkiak eta bideoak) partekatuak izango dira, eta, horrela, **etorkizuneko bezero posible**etara iritsiko dira.

Gainera, Kiwokorekin dugun lankidetzari esker, gure produktuak ere **denda fisikoan** egongo dira eta horrela bezeroak lortuko ditugu.

Bestalde, **propagandaren** bidez erosle berriak erakartzea pentsatu dugu, bai fisikoki, bai online.

Era berean, hainbat **hitzaldi** emango ditugu egoitzetan, alzheimerra duten pertsonen elkarteetan, saltzen ditugun produktuak gure merkatu potentzialera aurkezteko.

Gure **bezeroak mantentzeko**, hainbat eskaintza eta zozketa egingo ditugu, eta horiei buruzko **informazioa** gmail-en bidez jasoko dute, nahi izanez gero. Esker on gisa, urtean behin **zozketa** berezi bat egingo da, eta bertan bezeroek bakarrik parte hartu ahal izango dute.

Erositako produktuaren bi urteko **bermea** ere eskainiko diegu, doako mantenua barne. Bermea amaitu ondoren, urteko harpidetza duen **aseguru** bat jarriko dugu eskatzen duenaren eskura, mota guztietako ezbeharrak estaltzeko.

Gainera, bezeroekin harreman estua izan nahi dugunez, gurekin harremanetan jarri ahal izango dira inolako arazorik gabe gure **sare sozialen** edo **gmail**-en bidez.



@ubicap